

ALTERNATIBA HERRIA

Mundu Berria gaurdanik martxan !



1. Proiektuaren aurkezpen orokorra
2. Alternatiba, karbono ondoko herritxa bat Baionako hiri erdigunean
3. Holako egun baten erranhia eta helburuak
4. 10-10-10erako deialdi kanpaina
5. Elkarte eta egitura ezberdinen parte hartzea
6. Musikari eta artistei deialdia

10/10/10
GLOBAL WORK PARTY

**A Day to
Celebrate
Climate
Solutions**

1) Présentation globale du projet

Igandean, 2010eko urriaren 10an, hots 10-10-10a,n, goizeko 10:00etarik arratseko 10:00etara, ALTERNATIBA izanen da Baionako erdigunean biharko munduari buruz trantsizioan izanen den herrixkaren izena.

Oinezkoentzat bilakarazia izanen den eremu batek osatuko du. Eremu hori Xaho kaiatik abiatuko da, Galuperi kaiaren parte bat hartuko du Coursic karrika arte joanez, Tonneliers karrika hartuz, Patxa Plaza, Pannecau eta Cordeliers karrikak barne.

Karrikaz karrika ikusten ahalko dugu horrela zein diren obratze eta alternatiba zehatzak (AMAP, baratze edo ortuak, laborantza herrikoi eta iraunkorra, eko-erakuntza, auto partekatzea edo elkar-kidetza, bidezko merkataritza, ingurumenari buruzko hezkuntza, energia ekonomiak, garraio molde alternatiboak (ingurumena kaltetzen ez dutenak), haurrentzat den oinezko garraio kolektiboa, banku etikoak, berzitateak, trantsizio inizatibak...) gaurdanik baxotxari (norbanakoari, elkargoei, elkartei eta entitate ezberdinei) molde konkretuan bere berotegi efektuko gasen isurketaren murrizteaz ahalbidetzen dutenak.

Jendeek horrela ikusiko lituzkete gaur egun diren praktikak alternatiboak maila ezberdin horietan eta beren burua enplegatu ahal izango lukete urte bukaera aintzin aldatuta, bat, bi edo hiruren beren gain hartzeko !

Eremu hori ber moduan auzoko bazkari herrikoiaren gunea litzateke, haurrentzat jostagunak eta familientzat ibilaldi guneak ukanen lituzke, alki eta pausa guneak karrika ezberdinetan emanak izanen direlarik jendeak jartzeko eta beren artean elkarrekin egoteko. Musika animazioak segurtatuak izanen ziren, karrikako antzerkiak, irakurketa publikoak, etab. Horrek guztiak ukanen du besta itxura bat bai eta ere herritar mobilizazioarena, lagun giroa nagusi den karbono ondoko herri baten itxura eta gauegun diren alternatibak erakusteko gune batena.

Azkenik, egunak bere baitan ukanen du mobilizazio kolektibo baten unea. Bertan botere publikoen gain nahiko da presioa eman bai eta ere nazioarte mailan beroketa klimatikoari buruz izanen diren negoziaketetan : « Sistema alda dezagun eta ez klima ! »



Herri industrializatuetan, mundu mailan aitzinean emana den aldarrikapena ondokoa da: 2010etik hasiz, beroketa efektuzko gasak %10ez murriztu, %40ez 2020an eta %80ez 2050an:

ondorioz 10-10-10 = - 10 %

Nazioarte mailako deia:

ONG (GKE edo Gobernuz Kanpoko Erakunde) ezberdinek (besteak beste 350.org-ak) Nazioarte mailan dei bat zabaldu dute planeta osoan mobilizatzeko, igandearekin, 2010eko urriaren 10an, hots 10-10-10an, 2010etik beretik berotegi efektuzko gasen %10aren ttipitzearen haritik. Horren helburua delarik Cancun-en iraganen diren COP 16aren negoziaketen gainean eragin bat ukaitea.



Akitania osoan zabaldua:

Karia horretara, 2010eko maiatzaren 29an, Akitanian gaindi Larrialdi Klimatikoaren gaia lantzen duten hainbat elkarte topatu dira Bordalen. Bertan erabaki dute bakotzak bere eskualdean antolatu beharko zuela Alternatiba (Utopia eta Alternatibarentzat) ondoko printzipio haundiak segituko dituen proiektua:

- Jendarte neurritsua, autonomia, partalier edo solidarioa ezagutaraziko duena... Hots krisialdi klimatiko, energetiko, ekologiko, sozial, demokratiko, ekonomikoak kudeatzen jakinen duen jendartea.


- Berritasunak ekartzen dituzten aktoreak mobilizatu, gaur egun martxan diren alternatiba eta gauzatze bereziak ezagutarazi eta baloratu (AMAP, baratze/ortuak, laborantza biologikoa, eko-auzoak, eko-eraikuntza, auto-partekatua, bidezko merkataritza, ingurumenari buruzko hezkuntza, energia ekonomiak, garraio molde alternatiboak ingurumena babesten dutenak, oinezko/txirindulazko garraio publikoa haurrentzat, berziklatze guneak, ingurumenari lotua den osagarria, trantsizio inizatibak, etab.) bai eta eskualdean borroka ekologikoari edo/eta ingurumenaren arloari lotuak diren aktoreak inplikatu.

- Aldaketaren tematika ezberdinen federatzeko (bateratzearen bidez).

- Nazio arte mailan den mobilizazioarekin bat egin beroketa klimatikoaren aurkako akordio zuzen, haundi nahi eta behargarri baten aldarrikatzeko.

2) Alternatiba, karbono ondoko herrixka bat Baionako hiri erdigunean

Oinezkoentzat bilakatuko den eremuan, gaurdanik diren alternatibak erakutsiak izanen dira gai berezien inguruan antolatutak izanen diren gune desberdinetan. Horren helburua da hemen eta gaur gure berotegi efektuzko gasen isurketa tipitzen ahal dugula erakustea.



Elkadura eta laborantza gunea: AMAP, Baionako bidezko merkataritza, EHLG, Arrapitz, Lurrama, Slowfood,... bezalako egiturak gomiatuak izanen dira.

Horrez gain, auzoaldeko ostatu batzuk elkarturik eskainiko dute tokiko ekoizpen menua bat eta peña desberdin batzuk bio edo barazki apairuak eskainiko dituzte.

Garraio gunea: txirrindula konpontzeko tailerra eta maizago horien erabiltzeko moldeen aurkezpena (euri, gau, haur garraioak, joan-etorrien errextasunak, etab.), erakusmahaiak: delako "co-voiturage" edo bidai-kidetzak, auto-partekatzea, delako "pédibus" edo oinezko-garraio operazioak eta garraio mota desberdinek berotegi-efektuzko gas isurpenetaz konzientzi-hartze lana.

“Etxe aurreztaile” gunea eguneroko neurritasun gehiagorendako, kontsumo arduratsua. Lekuko gisa erabilia izanen den bizitegi batean...

Eko-eraikuntza eta bizitegien isolamendu gunea.

“Hirigintza, lurraldearen antolaketa, tokiko kolektibitateak” gunea.

Banku gunea: banku etikoei buruzko azalpenak eta jendeak bankuz aldatzeko laguntza gunea.

Aisialdien gunea: berotegi-efektuzko gas gutiago dituzten aisialdien aurkezpena.

Hezkuntza gunea: P'tits Débrouillards, Laminak, ingurumen iraunkorrari buruzko hezkuntza, Surfrider Foundation,... bezalako egiturak gomiatuak izanen dira.

Ekonomia gunea: birkokatzea, software askeak, tokiko dirua, etabar.

Hondakin gunea: nola egin hondakin gutiago ekoizteko hiri barnean; CADE, Alternatiba elkarte (Baso Berri), Bil ta Garbi, Usurbil, Oihartzun eta Hernaniko esperentziak (Garbitania Zero Zabor).

Birziklatze gunea: Emmaüs, liburu trukaketa, jostailu trukaketa, birziklatu jantziekilako moda desfilea, gauzakien berreskuratzea, jostundegi konponketak, gehiegizko gainestakien aurkako borroka, etabar.

Gaikako gune horietan agertzen diren elkarte eta egiturek lehentasunez goizeko 10etatik arratsaldeko 13a arte egin beharko lukete (egun ondarra nahi eta ahal dutenentzatlitzateke).

Zalantzarik gabe jakinaraz ezaiguzue lehenbiziko zerrenda honetan falta bada egitura, elkarte, alternatiba edo gai bat.

Gaikako gune horiez gain, Alternatiba herrixka leku ezberdinetan izanen da:

Eztabaida eta gogoetaldiak: ostatu desberdinetan (tokiko, bio, bidezko ekoizpen menua emaitera gomiatuak izan direnetan), elkarrizketa eta mintzaldi antolaketa: berotze klimatikoa, sistema aldatu eta ez klima, energi fosil merkeen amaiera eta honen ondorioak

Emanaldi eta eztabaidak: Trantsiziozko hiriak, The Age of Stupid, eztabaidaz jarraiturik.

Adierazpen gunea: idatzizkoa gazteen eta helduendako, marrazkizkoa haurrendako.

Parte-hartzaile fresko/pintura handi bat (ehunka eskuz osaturiko marrazki bat, bakotxak bereak ezar litzazkeelarik) gauzatua liteke egunean zehar toki ilun/gris batean, gunea apaintzeko xedearekin!

3) Holako egun baten erranhia eta helburuak

Zenbat berotegi efektudun gas sortzen duten jakiteko lagunduak izan daitezzen, haien bizimoldearen, kontsumo usaien, garraio-moldeen, etxebizitzaren mailan, etab..., jendeei karbono bilan bat proposatua izanen zaie.

Ondotik, jendeei itun bat proposatuko litzaieke haien eguneroko usaien eta praktiken aldatzearen bideratzeko (20 engaiamenduko zerrenda batean), horren baitan bi edo hiru engaiamendu hautatzen ahalko lituzketelarik (garraioei, berotzeko moldeari, kontsumoari, elikatzeari edota hondakinei buruz...). Horren helburua, berotegi efektudun gasen %10ez beheititzeari buruz hurbiltzea litzateke. Ideia horren logika da, urtero jendeak gero eta engaiamendu gehiago eta urrunago joaten direnak har ditzan.

Horrela, Alternatiba Herria bisitatuz, jendeek zein eginmolde alternatibo badiren deskubri lezakete, bat, bi edo hiru haientzat ontzat hartuz.

Beste bilan-engaiamendu mota batzuei pentsa liteke, egokituak ez norbanakoei baizik eta egitura kolektiboei (herriko etxeak, herriarteko sindikatuak, elkarteak, apartamendu eraikinak, kirol klubei...), egun hartan erakutsiak litezkeenak eta egitura arduradunek beren egitura kolektibora eraman lezazketenak.

Laguntza urraspide bat litzateke, pedagogikoa, eta eredu emaila. Jendarte guziaren akulagarri izan liteke. Epemuga zehatz batez, urtero auzoalde edo herri ezberdin batean antola liteke (horren bilana egin orduko, ehen esperientzia behar bezalakoa eta atsegingarria baldin bada).

Helburua, progresiboki emendatuz, urtero egitea litzateke, 2010ean -%10etik hasiz 2020ean -%40era iganez.




Euria baldin bada, Alternatiba Herria hala ere egingen da, kalostrepetan eta Baiona ttipiko egoitza ugarietan kokatuz.

4) 10-10-10erako deialdi kanpaina

Baionako bestetatik goiti, kanpaina bat abiatuko da bi urratsetan.

Asteazkenetik ostiralera, 10-10-10=-%10 mezua duten mezu-paper luzeak kolatuz, jakinminaren eta elkarrezketaren bultzatzeko gisan.



Ostiraletik iganderaino, bi mezu-paper luzeren kolaketa, 10-10-10=-%10 mezua "Changeons le système pas le climat" edo "Mundu berria gaurdanik martxan!" lotuz, egunaldi horren erranahia eta 10-10-10 argazki erraldoi baten egitera deituz, Baionako bestetako igandean.



Sartzetik goiti, molde ezberdinez egunaldiaren aurkezpen publiko bat egingen da.

Interneten bidez, nazioarteko materiala erabil liteke: bisuala, bideoak, marrazki bizidunak etab...

Irailaren 23ko egitarauaren liburuxka bururatuko liteke (gomit diren elkarten arteko lehen koordinaketa bilkuraren data).

Urriaren 1ean, ostiralez, Akitanian inplikutzen diren Larialdi klimatikoren inguruko kolektibo guzien arteko prentsaurreko bat iraganen da Bordelen, eta Baionan ere, edo justu lehenago (irailaren 30ean, ostegunez), edo justu ondotik (urriaren 2an larunbatez edo urriaren 4an astelehenez).

5) Elkarte eta egitura ezberdinen parte hartzea

Elkarteak eta egiturak lehenetsuz 10:00tik 13:00arte, gune tematiko horietan agertuko litezke (eta egun osoan nahia eta ahala dutenentzat).

Haien alternatiba ahal bezain konkretuki aurkeztu beharko lukete. AMAP batentzat adibidez, banaketa egun horretan finkatzea ideala litzateke, jendeek konkretuki nola iragaiten den ikus dezaten. Hoberena litzateke laborari ekoizleentzat bat etorraraztea, gai horri buruz haren ikusmoldea emateko parada ukan dezan.

Hondakinen guneari dagokionez, zizare-konpostatzaileak aipatuko litezkeen kasuan, erakusketa bat segurtatzea. Garraioen gunean, txirrindularen sustapenaz gain, gehigarri konkretuago baten proposatzera entseatzera: jendeei berek zilo den errota baten konponketa nola egin irakatsiz, etab.

Bistan da, gauza mota horiek interesa duen egiturarentzat apailatzeko konplikatuegiak badira, norberaren aktibitatearen aurkezteko erakusketa bat edo erakusmahai bat eta interesa luketen jendeei beharrezko azalpenen emateko norbait izatea nahikoa izanen da.

Horren guziaren koordinatzeko eta gomit diren elkarten eta egituren galderei erantzuteko, bi bilkura (denek bederen batera etortzeko ahala ukan dezaten) antolatuko dira.

Manu Robles-Arangiz Fundazioaren egoitzan iraganen dira, Baiona Ttipiko Cordeliers karrikan, 20. zenbakian, irailaren 24ean eta 30ean, larunbatez.

6) Musikari eta artistei deialdia

Gaurdanik dei bat luzatzen zaie artista eta musikari guziei, etab. herri alternatiboaren animatzera etor daitezten... Kantua, musika, antzerkia, irakurketa publikoak karriketan eta egoitzetan...

Auzoaldeko biztanleak, baita besteak ere, auzoaldeko apairuak, apairu partekatuak, bat-bateko aperitifak, mota anitzetako jokoak etab. antolatzera bultzatuak izanen dira.

Haurrentzat animazio guneak kokatuko dira, baita ere aulkiak eta kadirak alde guzietan, familiek, adineko jendeek, karrikara ateratzeko parada ukan dezaten eta sinpleki eleketa ari izateko, so egoteko, denbora hartzeko...

Hots, jende orori karrika beretzeko eta autorik gabeko hiri-inguruneak zenbatetaraino beste bizi baldintzak, jendeen arteko harremanak eta loturak sor ditzakeen erakustera etortzeko gomita luzatua zaie.

Horri esker, eraiki nahi dugun karbonoaren ondoko jendartea zoriontsua eta elkarren arteko alaitasun pizgarria izanen dela eta ez dela latza eta sakrifio eragilea izanen erakusten ahalko da.